


ZER

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

166n. Zenbakia Iraila
1992



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



**GASTEIZ:
GOTZAIN-ELEIZA BARRIA**

UDA-ALDI BEROA

Aurtengo uda-aldia beroa izan dogu,beroa eguratsa kontuan dogula eta beroa gizarteko jazokizunak gogoratu ezkeru.

Udaren asieran gutzat berotasun aundikoa izan zan EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren ogei ta bostgarren urtea ospatzea, ZER onen aurreko zenbakian gogoratzen gendun lez. Baiña ospakizun ori gutzak gauza aundia izan arren, uda onetan beste ospakizun aundiago batzuk izan doguz.

Udaldia,geienetan,albiste gitxikoa izaten dala diñoie, baiña aspaldion ez da orrelan. Igaz, esaterako, udan izan ziran Errusia'ko goraberak, ain garrantzizkoak.

OLINPO-JOKOAK

Zarata aundikoak izan dira aurten Bartzelona'n ospatu diran Olinpo Jokoak. Mundu guztiko kirol-zaleak ikusi doguz, ondo jokatu dabenean pozez eta gauzak ain ondo joan ez diranean negarrez.

Eta Olinpo-Jokoen inguruan beste jai-aldi goragarri batzuk, batez be sarrerakoa ta azkenekoa. Gure ertilarriak ondo agertu dabe or euren irudimena ta trebetasuna.

GIZARTEA

Olinpo-Jokoak diralata, pizka bat isilago ibilli da baiña or daukagu Sebilla'n Ainbeste laterriren artean gertatu dan Erakusketa, Kolon'ek Amerikak aurkitu ebazenetik 500n. urtea ospatzeko.

Giro orretan, asieran eta laterri bakoitxari dagokion egunean eta egunero, jai ikusgarriak egiten dira.

TXESKOSLOBAKIA

Baiña jai gogoangarri orrein aurka, munduan badi dira uda onetan jazokizun negargarriak be.

Benetan mingarria dogu Txekoslovakia izandakoan, geure auzoan esan geinke, daukagun guda atsekabetsua. Zelako erretzasunaz sortzen diran gudak gizartean. Eta zelako zapalkuntzak gizonen artean !Barriro be Alemania'ko zigor-zelaiak gogoratzen dauskuez!

Eta ez da ikusten bakerako argi-izpirik-.

ETIOPIA TA SOMALIA

Etiopia'koa, zori txarrez, gaiso zarra da, baiña ez ain zarra Somalia'n sortu dan gosetea. Berez lurralde txiropa dalako edo legorteagaitik, lurralde aretan millak gizonak ilten dira gosez, umeak aurrenengo dirala.

Ba- dira olako egoerai laguntza emoteko jokabideak be be, baiña batzutan eziña da, eurak izten ez dabelako, beste batzutan laterri aberatsen ardura be urria.

LANBAKOEN SARIAK

Idaz-lan onen asieran aitatu doguzan "gauza aundiak" edo gizarteko giroak ikutua dabelako, ekonomia larrialdi baten agertzen da, munduan eta geure artean. Orregaitik laterri-barruan dan eralketa orokorra murrizteko, bide lez, lanbakoai emoten jakezan sariak meetuteko bidea artu nai dabe. Ba-leiteke arlo onetan zuzendu-bearreko oker batzuk izatea baiña zenbat diru eta zertan erabilten dan ikusi ezkeru, ba-dagoala non eralketak urritu esan lei, lan-bakoen sariai ikutu barik.

ETA'REN BAKE-ALDIA

Ille pare baten ez dogu entzun ilketak egitearen barririk eta ortik udaldirako pozaldia etorri da, baiña dagonil onen azkenean Oiartzun'en izan dala ilketa bikoitz bat entzun dogu.Orrelan arazoa alkar-izketa bidez kanpontzeko itxaropena galdu da. Euskalerraren izen onagaitik, gizonari zor jakon itzaltasunagaitik erbesteko diru ezarteak galtzen doguzalako, emengo dirutzak kanpora doazelako, eta batez be gure erriak bakea nai daualako, ilketak alboratzea bearrezko gauzea dogu.

BARATZEAN SUGEA

Uda onetako jazoerak aztertu ezkeru, baratz ederrean suge bildurgarria ikusten dogu: Eralketa aundiak eta ekonomi-larrialdia, bakearen billa ibilli eta gudea aurkitu, batzuk ugaritasunean eta beste asko gosez ilten.

Larrialdian dago gure mundua.

1992

Euskerazalea sortu zanetik
 Aurten ogeta bost urte
 Eta ogeta bost urte ontan
 Lan zuzen ta zalla bete
 Ta entzule lez berbaldietan
 Neuk bere arturik parte
 Entzun da gero artega nago
 Bertso oneik jarri arte

Gure Euskera danen gañetik
 Euskerea izan daiten
 Zuzendaritzan dagozanari
 Nagor oju bat egiten
 Erri Euskera baño ez dakit
 Ta enator irakasten
 Bakarrik nator nere eretxiz
 Neuk dakidana esaten

Guztiok gagoz era guztiak
 Bear doguzala batu
 Orretarako bearrena da
 Erri guztiena artu
 Lenen lenengo bearrezkoa
 Lengo liraña ez aztu
 Ta aberastu bear doguna
 Oñarritik aberastu

Gure Euskerak igaro eban
 Benetan aldi larria
 Baña kaleak utz egin arren
 Jabetu zan baserria
 Orain kaleak aurren jarririk
 Sortu nai dausku barria
 Baña alperrik ez badan artzen
 Baserriko oiñarria

Guk ez diñogu Bizkaiera
 Ederrena dala baña
 Bai esan geinke benetan dala
 Oso leuna ta liraña
 Nai eta egin barrizaleok

Bastertuteko kanpaña
 Erriarentzat benetan dogu
 Egokia ta apaña

Sasi maisuok apaindu dautse
 Euskereari gorputza
 Kijote baten antzerakoa
 Andia ta arroputza
 Kanpotik ondo polita baño
 Barruz ustela ta utza
 Bada kanpoan itxi dautsiez
 Garaunak eta biotza

Ganorabako liburu eta
 Amesetatik ikasi
 Ta gero jarri aurrengo eta
 Irakasleen nagusi
 Susterrik bako landararikan
 Ezin leiteken lez bizi
 Fruturik lortu ezitekotan
 Zertako lanean asi.

Ez jakin batek artuten badau
 Goirengo dagon aurkie
 Jakitun andi, bean badago
 Itxura baten txikie
 Eta orrela errazoientzat
 Beti dago atxakie
 Oiñarrizkoa galtzen baiaku
 Euskeraren errukie

Sinistu danok Euskal Erria
 Gura badogu bizirik
 Ez daigun galdu sagraua dogun
 Oiñarrizko Euskerarik
 Ezin leiken lez iñola izan
 Pagobako pagadirik
 Gure Euskera galtzen badogu
 Ez dago Euskal Erririk

PUJANA'TAR BASILIO

IRAKURLEAI OARRA

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratzeko ere. Etxerik etxe joaten da kobratzaillea. Baña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dautzuegu: Bialdu eizue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEAren izena ipiñi ta 1.200 pezeta dirala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal baten eta gaiñean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.
 Colon de Larreategi, 14, 2.º, eskoia. 48001 BILBAO.

PEDRO ATUTXA IZA

Don Pedro Atutxa Iza Zeanuri izeneko errian dagoan Undurraga auzoan jaio zan 1901eko martiaren 9an.

Fede sendoa ebala eliz eziketaz arituz Filosofia eta Teologia goi-mailako ikasketak burutu ebazan Gasteizeko Seminarioan eta geroxeago Burgoseko Unibertsitatean.

23 urte ebazala adin-baimenagaz abade egin zan. Orditik aurrera, bialdu eben errietan gogoz eta leia andiz jardun eban. Besteak beste aipatzekoak dira: Aletxa, Cicujano, Pobes, Ea eta Orozko.

Gerra ostean jeltzaile izatearren Laspuñara erbesteratu eben, eta bertan lau urte igaro ebazan.

Ainbat gorabeera jasan ondoren Ipiñara (Zeanuri) bialdu eben asiera batean eta azkenez Undurragara eta an ekiten dautso bere eliz bideari.

D. Pedrok, bere bizitzan zintzotasun osoz egindako lanagatik esaera zaar bat dakarsku gogora: "Lan baratza, lan aratza".

Abade legez, Don Pedro Ebangelioko zuaitz biurtea lortzen dauan aziaren irudiagaz alkartu geinke, txikia eta ezereza izatetik egazti guztien babesa eta estalpea izatera eldu zan.

Bere moduko beste ameslari batzuen laguntzaz sortutako Zulaibarreko Eskola gorantz doa etengabe eta gaur egun eskualde barri eta obeago baten itxaropen diran eundaka gazte batzen ditu.

Ainbat gazteren etorkizuna argitzeko egin dan argi disdiratsua dogu, guztien elburuak lortzera lagunduz eta ordurarte eurentzat ezezagun ziran bide barriak zabalduz.

Gizon legez ordea, zabalkunde gogo eta marketing teknika barik agertzen jaku, langile amorratua bera (askotan ez ulertua) eta beti be Arratiako gazteriari zidor barriak eskeiniz ezelango nekadura tantarik isuri barik.

Etorkizuna ikusteko eban moduagaitik, gure aranen industrializazioa posible eitekeela sinistu eban leen europarra dala esan geinke, Euskadi Europako erri ezberdinekaz bardintzeko teknikari prestuak sortuz.

Eta gaur, bertako sortzaile, zuzendari, irakasle, Erakunde, Foru Aldundi, Eusko Jaurlaritza eta enparauen laguntzari esker 36 urtetan lan sendo eta ugari-tsuan jardun ondoren, abade aipagarri oneri omenaldi txukun bat eskeini gura dautsogu, ain bitarteko gitxi-gaz eta ain garai arazotsu eta gaitzetan Arratia osoak eskertuko dautson erri-lan garrantzitsua aurrera eroan ebalako.

ESKERRIK ASKO DON PEDRO

EGITARAU-PROGRAMA

11,00 etan:

MEZA NAGUSIA San Antoneko Orfeoiagaz Zeanuriko Andra Mari parrokian.

13,00 etan:

OMENALDI EKITALDIA Zulaibarreko Udal Pilotalekuan:

(Aurkezpena Ohorezko aureskua - Bertsolariak - Dantzak)

14,15 etan:

Gorazarrezko plaka agirian ipiniko da.

14,30 etan:

Anaiarteko bazkaria (gonbidapena derrigorrezkoa da) Eskolako jantokian.



ZULAIB AR

LEIRE

Toki naiz uri batera eltzean, beti jat atsegin ango zerbaitez jabetzea; txikiak izanda be, zoragarritasunez gainezka daukaguz eurak, kale, etxe ta bazter txit eder eta lillurak, barruragotu ezkerro, barriz, aibat eleiza, jauregi, torre-etxe eta abar geure-geureak; gure aurretikoen aztarnak, gomutakiz beteak. Asko dira gaur gure asaben kondairaz jabetu nairik, gure lur-ataletan urduri dabiltzanak. Baita neu be.

Eta olakoetan nik, ia beti, jeografi, edesti, paper edo libururen bat eskuratzea, pozgarri jatanik ezin ukatu. Illabete batzuk dirala, iru gizaseme gaztek Naparru-aldeak, azal samarretik ikus-naia erakutsi eusten, nik lagundurik. Izentatu zan eguna, eta goiztar arako bidea artu genduan laurok: Dima, Gasteiz, Azazeta, Kanpetzu'n ogi gozoak arturik, Azedo, Mues, Azketa, or aurrez-aurre Montajurra bekokimotz, Lizarra, Obanos, Eunate (emen gosaldtu), Liedene, Sangotza, Xabier...

Napar mixiolari trebeak merezi eban arnasaldi ederra. Gaztelu inguruak eta etxea ta eleiza azterkatzen doguz astiro. Goiz bikaiña, eta guk aize gozotan ase nai geure birikiak. Gaztelu-ostean jasotakoa, aparteko ederrez jantzia aurkitu genduan, eta eleizbarruan mixiolariaren iduria eta Karmengo Amarena sarreratik eskumara: toki bakotxean miresten diran gauzak, ez dautse bardin barne-lezea arrotzen. An ortaz oartu nintzan ni, iru gazteen autuetatik.

Andik beera jatxirik, Yesa barrenean artu genduan Leire'rako bidea. Emen daukagu monastegi au, jagi ta duin, Xabier'tik ur sarmar. Mendi zuri-luzea jagole legez, Yesa potzua eta Aragoi lurak aurrez-aur, or dozu Leire, Santutegi baketsua, leku askotakoak sarri ikuskatua, Salbatore Doneko Abat-etxea, nik noizik bein neure bizitzan miretsia. Guk zoli-zoli, barru ta kanpo, bertako eleiza, aterpe, santu, baratz eta arte-gailluak ikuskatu ditugu. Jente arrotz asko begi-luze; or Bilboko autokar dotore bat be. Gazteak mendirantz igon dabe.

Onakoetan, lekaideak euren zeregiñetan dagozan bitartean, atean, eleizan eta abar, jenteari erakutsi leikeona erakusteko arduradun bereziak egon oi dira. Lenago berriatuar bat egoan emen; orain beste batek eukan lanbide au, ots, liburuak, iduriak eta olakoak

saldtu, lekaretxearen entzute ta gauzak eskiñi ta zabalduz. Laurotatik bakotxak erosi eban atsegiñen jakona. Nik Leyre liburuxka erosi neban, ango kondaira, monasteri, eleiza eta monumentuak ekazana; txikia baiña betea, euskera jatorraen gainera.

Bakartegi ontako orri politikak au dakar lenengoz, istori pizkat oso mamintsu; onela diño: "Edestia. Iruña'tik 60 kilometro bide inguru ditugu Leire'ko Abat-etxera. Bai Naparro'tik, bai Aragoi'tik eta bai Auñamendi-iparralde aukera errezak dituzu bertortzeko. Tarragona'tik Donostiruntz doan bitzabaletik albora, beste bide estuagoan gora, berela aurkituko dozu, bakartegi ixil eta ikusgarri au.

"Abatetxearen inguruak zoragarriak ditugu. Iparalderuntz Errando naiz Leire'ko maillo ebakia ura pendiza! Aitz soil aretan mendigoizaleak ba-dute ibil-leku aukerakoa. Ego alderantz, Yesa'ko aintzira; putzu barea ta paketsua. Onen ur-ertzari lotuta, an dijoa Prantzi'tik Kompostelara dijoan bidea. Santiago-galtzarak jende inguratzen zuen alderdi artara. Sorkalderuntz, Berdun'go ur-bidea. Oroel'go gallurra ta Aitzegi San Juan'go mendiak. Sorkalderuntz, urrutira, mendi-kate luzeak. Aien nagusi Ujue'ko erpiña agiri da.

"Abatetxea IX'garren gizaldia baiño lenagokoa da. Bakar zale batzuek an bizi izan ziran sendiarteko aitzuloetan. 848'garren urtean, alde aietara iritxi zan Kordoba'ko San Eulojio. Ordurako, praille-sail aundia ta liburutegi aberatsa arkitu zituan etxe aretan. X'garren eta XI'garren gizaldietan, Naparroa'ko Erregeen bizi-leku ta obitegi nagusia izan zan., Santxo Nagusiaren egunetan, izen aundia iritxi eban. Abatetxeak lur-zabalak zituan bere mendearen esku zeuden aldi aietan, Naparroa;ko errigintza, jakintza eta Auñamendietatik zetozen Santiago'rako bideburuak. Garai onetan, Kluni'ko bizikera Auñamendi aldean zabaltzen nagusi izan genduan. XIII'ren gizaldian, Teobaldo erregeak Zister-Ordenako arau estua sartu zuan bertan. Ondoren bea-aldia izan zuan abatetxeak 1836'garren urtean, Leire'ko praille bizitza ondatu egin zan. Elizetako ondasunak salgai jarri baitzitian "desmortozazio" izeneko lege kaltegarriak.

"XX'garren gizaldian, Naparroa'ko Aldundiak abatetxea lengo nagusitasunera ekartzen, alegiñak egin zituan. 1954'garren urtean abatetxea berriro

dira: Letradu bat (Paulo donea) Petri donea ta Maria, Juan ebanjelaria ta irudi ondatu bi.

Iruzokodun au eta gaiñeko irudiak atalaurreri itsatsita dagozela dirudie. Lendabiziko atalaurrea turuta-itxurako sei abez osatua zan, nunbait, bere buruzka ta makukoskekin.

14.—(Irudi aundiak): Mikel donea erensugearen gaiñean, bere iruzokondoko ezkutarekin: Jagoba Donea, Salbatzaillea, Petri done, Juan ebanjelaria ta antzaldatzeko gerta-irudia.

15.—Munile ta Alodi neskatz ziñopen oiñazeketa: Jainkoaren eskutik pozaren-pozez doaz.

16.—Oñazeketaren beste agerpen bat. Nexka bietako batek borroaren aizkora dau lepoan eta bestea bere txanda-zai dago.

17.—Jonas balearekin erakusten dausku.

18.—Txerren batek anima bat atzematzen dau.

19.—Apokalipsis'ko mamutzarra.

20.—Ikustaldia (Andra Maria'rena).

21.—Aingeruaren Barri Ona Andra Mariari.

22.—Azken-epaiketarako deika dagoan turutatun aingerua.

23.—Turutatun beste aingeru bat.

24.—Gotzain bat.

25.—Leioz inguratutako Jagoba Donea.

26.—Zirikaldi sareetara jausitako anima bat.

27.—Bere atzamarrak ortzikatzen dabezan egaztiak.

28.—Suge-lepo, egazti-gorputz eta atzaparrak dituan abere arrapalaria.

29.—Giza-itxurako zenbait iduri, makupean zapalduak eta kateperatuak.

30.—Leoi-kumeak eize-usaian orruka.

31.—Koskak: xingote-kukumarru ta aberetzar itxurakoak. Auek, ogibide ta pekatuekiko antzirudiak ditugu.

IV. (X, XI eta XIV'garren gizaldiko) ELIZA

Atalaurrea ikus-ondoren, zoaz barrukaldera ta erdi-erdian jarri zaite (10). Emendik askoz obeto nabaitzen dira elizaren iru aldiak:

—(X'garren gizaldiko) arburua.

—(XI-XII'garren gizaldiko) eliz-barnea, buruzkietaraiño.

—(XIV'garren gizaldiko) maku-zorrozdun eliza-sapaia.

11. Leku beretik elizaren ARBURUA ikustatu.

Erromatar-giroaren aurretikoa. Begira: erdiko eliz-barnearen makua, zapaldua dago. Bere barruko

makuarekiko, kosketatik irtena dezu. Eliz-barne ontako maku guziak alako makurrera bat agertzen dute. Eliz-bularraren leio zabalean ere, makurrera bere. Alboetako eliz-barneak berdiñezak dira. Eskuiko eliz-barneak, ezkeraldeko be-aldean urratu zabala du, erdiko eleiz-barnetik datorren makurrea zutikatzeke.

Argintza, maillukada gogorrez landutako zakarra agiri da.

Buruzkiak, antziñatekoak. Abeak ez dute oiñarrik, geienetan, ezta lepagailurik ere.

Azkenengo zatia, geroko urtetan kendu egin zuten.

Arrilandua oi baiño aundiago da. Arria nabartua du.

10. Ingurua miatu.

Eliz-barne aundia, erromatar-girokoa da, buruzkien goi-alderaiño. Arria, zuria ta karezkoa da. Erditindun makuak, bikaiñak dira. Atalaurrearekin alako opilla egiten du; au, agian zurezko sapaiz estalia. Onen etxe-ertzetan ederki nabari dira bere ixuriak.

ELIZ-SAPAIA maku-zorrotzekoa da. Maku auen giltzak armarriz ornituak daude. Alde ontako arria, bekoaren gaiñean oso nabarmena da; orixka baita, eta ia beti erdi-aldean zulatuxea.

Eliz-barne ontan, bi aldare dauzkagu:

Bata, klasiku berria ta Nunille ta Alodi doneei jasoa.

Bestea, barroko-tankerakoa, Leire'ko Andre Maria'ri eskeiña.

12. XV'garren gizaldiko gotiku-erako elizatzoa atxurdiñezko kutxatilla batean, an ditugu Naparroa'ko lenengo errege-erregiñen ondakiñak.

Aldarean (XIV-XV'garren gizaldiko) zurezko Gurutze aundia landua agiri da.

Elizara sartzeko, erromatar-giroko atalaurretxoa du. Iru-zokondodun arlan barruan Jagoba-tankerako lauburua agiri du.

Elizatzoa au ikusita, Bakartegiko ikusaldia bukatua dezue. Prailleak beren koruan abesten ari badira, elizako alkietatik aien otoitza entzun dezakezu. Bakarti aiek, otoitzean eta lanean bizi dira; gregoriar abeskera izan dute lendik beren oitura. Elizkizunetan eta Kondairamiaketan daramate beren garaia... Beren bizikera bakartia bide dala, Bakartegi aipagari oni iraunarazten diote.

AITA ONAINDIA

lenengo urtean edo 1933'an, lemazain Oliden zumaiarra zala. Eta urrengo urtean, 1934'an "Julito" izan zala, ta Kandido Arrasate lemazain.

Oliden'en seme bat faktorixako mekanikua zan. Au, bere ezaupidea emoteko esaten dot.

Dirudiane 1933 ta 1934 izan ziran atuna errira ekarri eben urteak eta ontziak, "Osasuna" ta "Julito".

Urrengo urtean zeregin ori laga egin eben, ez eben atunik bialdu errira baporak. Urte aretan jelerak ipinten asi ziran ontziak eta atuntsuan oraindik geienak jelera barik egozan arren, ez eben ontzirik ipiñi atun karriogan. Jelerak eukezenak ez euken aren bearrik eta beste ontzientzat, au da jelerarik ez eukentzat, gasto geiegi zan.

Baiña oraindik, zer edo zer, illun ikusten dot. Ikusi daiguzan Imanol Oruemazaga'k emoten dituan zenbakiak.

"Atuntzuak Santa Klara kofradian urtez urte:

1927 374.313 419.442

1928 216.501 224.518

1929 168.309 171.066

1930 222.953 402.790

1931 324.577 463.306

1932 370.125 421.016

1933 231.297 324.832

1934 632.392 719.652

(Berak ez diño baiña nire ustez erdiko zenbakiak "ki-loak" dira eta besteak eskumakoak "laurlekoak").

Gorago esaten dodan illun ikusten dodana 1933'ko zenbakiak dira; Santander'tik atuna ekarri zan urtea izateko, txikiak, atun gitxi. Zelan izan leiteke ori?

Ta beste kontu bat. Nik uste neban egunero ekarten zala atuna Santander'tik; baiña Zubikarai'k diño 1992 ZEREGIÑAK'en astean birritan etorten zala.

Astean ostera bi bakarrik egiten ba'zituen, baten iru eguneko arrantsuak ekarten zituan eta bestean lau egunekoak.

Ta zelan kontzerbaten eben karrioko ontzietan ainbeste eguneko atuna?

Zubikarai'k ez dau esaten EGUTEGIA 1976'en zenbat egunetik zenbat egunera etorten ziran, ta Imanol Oruemazaga'k be ez ONDARROA 1987'an. Baiña Don Andoni'k zearka bada be aitatzen dau ONDARROA 1986'an. Ara diñoana:

"Seireun gizonen jakia egunero erritik eruan edo orren dirua erbestean lagatea ez zan alde makala".

"1890'ko Gabonillaren 2'a.- Euskalerrian ots andia ataratako estropada: Ondarroa ta Donostiako treñeruak jokoan. Azillaren 23'an jokatzeke zan, baiña ekaitz gogorak gertatu ziralako, atzeratu bear. Lekeitio aurrean asi eta Getari'ko muturrera zan estropadea. Bostna milla ogerleko jokoan. Donostiarrak irabazi eben estropada, baiña ondarrutarrek ez dabe sinistuten estropada a garbi jokatua izan zanik. Ondarrutarren patroia eririk iges egin eta erbestean il zan. Donostiaren patroia Luis Carril zan; ondarrutarrena, Ambrosio Bedialauneta. Amar milla ibilli bear ziran. Donostiarrak 81 minututan amaitu eben jokoa".

Bai, estropada a olantxe izan zala ikasi genduan. Baiña urteak joanean asmautako upiñak dira orreik. Orduan iñok ez eban esan edo idatzi ondarrutar lemazaiñak zikin jokatua ebanik, ezta susmo txikienik be. Orduko kofradiako Iturriza

kontulariak bere liburuan diño estropada egin eta egun batzutura erramulariai lan sari lez diru apur bat emon eutsela, ezer ez, laurleko edo errial batzuk. (Liburu atan dana da erriala, kontu guztiak errialetan egiten zituen). Ta, lemazaiñari besteai beste emon eutsen.

Ta ordutik urte gitxira idatzi eban KRESALA'n Don Domingo'k be ez dau esaten ezer lemazaiñak txarto jokatua ebanik. Iru-lau bider zearka lez aitatzen dau estropada a baiña galtzearen errua iñori emon barik.

Estropada entzutetsu a eginda berrogei urte ingurura, 1930'ean gitxi bora-bera, Shanti Meabe k zeozer idatzi bear izan eban izparringian, Ondarroa'ko treñeruko lemazaiñak etoikeria egin eta iges egin ebala Montaña aldera. Ta Ambrosio'ren semeak erantzun eutsen Bilbo'ko "Excelsior"etik: Euren aitak ez ebala traiziñoirik egin, eta geroago erriz aldatu zala sendi osoagaz orduan arrantzale askok egiten eben lez.

Barria edo albistea, "Cosas de hace cuarenta años" izenburuagaz agertu zan.

"GABON EGUNA. Datorren abesti bat.

"Dringilin dron

gaur gabon

zakela betea daukat eta

besteak or konpon".

Disko baten be "zakela" esaten zala entzun neban; baiña asko lenago, emengo guda aurreko ARGIA'REN EGUTEGIA baten, "sabela" abestuten ikasi neban. Ta izan be alan izan bear da; gabon gabeenabela beteteak asko arduraten gaitu.

"1024'ko Epaillaren 31.- "Excelsior" egunkaria agertzen da. Jazinto Mikelarena zuzendari. "Gernikako pelota toki-koak ziran geienak, Juan Irigoyen, Castor Iriarte eta abar.

Geroago, barruko zerbait, eta izena aldatu, "Excelsius". Azken gerraren asieran amaitu zan egunkari au. Bere tokian Eguna ataraten zan".

Bertako idazleetako bat Tellagorri zan. Eta berak bein, aldarte onean arkitzen zan baten, (olantxe esaten eban barria edo albistea emon ebanak) ereserkia atara eutsan La Vuelta al Pais Vasco edo egun areitan egiten egozan txirringutsezko Euskalerrira Birea'ri. "Vete por tu derecha Dewaele" izena ipiñi eutsan ereserkiari.

Dewaele, aurreko urteko Euskalerrira Birea irabazi ebana eta egiten ziarduen urte atako birea be irabazteko bidean joian txirringutaria zan, belgikarra uste dot.

Birearen ereserkia zala edo izango zala ta egindako olerkia geiago ez eban iñok aitatu, ez eban ezer balio.

"1874'ko Iraillaren 7'an Regino Ariz jaio zan Iruñan".

Musikalaria. 1911-1945 bitartean Donostiko Musika taldearen zuzendari izan zan.

Donostin il, 1947'ko 10'an.

Mende onen lenengo urteetan Ariz izeneko bat, ez dakit bera ala beste bat, Ondarroa'n egon zan denpora gitxian musika taldeko zuzendari.

Ta zeregin beragaz Medel abizeneko beste bat be egon zan aldi aretan, neska gazte atzipetzaillea.

Kontu oneik gu baiño urte pillo bat zarragoak ziran bertako taldekoari entzunda dakidaz.

URKIOLA

Baten batek. esango daust, bear ba'da: Zertara zatoz gai onetzaz barrero? Gai ori bagillean erabilten da. Eta izan be aldizkari ta izparringietan Urkiola gaiaz gitxi, baiño geiago agertu zan. Aita San.Antonio'ren omenez be ainbeste gauza esandakoak berbiztu gura geunkez.

Humboldt jakintsuak esan ei eban Urkiola'ko gaiñetan: "Ez dot nire bizi guztian orrelako ingururik iñon be ikusi".

Urkiola, santuen eta sorgiñen toki minberakor, ikaragarritzat artzen da. Euskalerriko toki entzutetsua, atx zuri aundiz inguraturik, zelai orlegiak gaiñetan, berezko zugazti eta lorez beterik dagozan baratzak. Aita San Antonio ta Anboto'ko Andrea erri-irudimenean bizi-bizi dagoz.

Ni zarra be ba- naz-eta, bertso zar onek diñoana jatort gogora: "Aita San Antonio Urkiola'koa, askoren biotzeko santu debotoa. Askok egiten dautsoe San Antonio'ri, egun batean joan eta bestean etorri, eta zapatak urratu, Aita San Antonio'k barriak eingoitu. Aita San Antonio bera dana lez maitatu bear dogu",

Bertso oneik egin ebazan olerkaria ez zan goi-argi askokoa, ez-eta teologu jakituna, baiña ba-eukan San Antonio'ganako zaletasun aundia. Idatzi dodana, bertsu orreik buruan sartuta, entzunda edo irakurrita idatzi dot.

San Antonio'ren amama Urkiola inguruetakoa zala eta augaitik bera Santua etorten zala ona eta orrexegaitik Bizkai eskualde osoan berarizko oneraspena jakola

San Antonio'ri, diño. Edesti ori egia ete da?...Gaztea ba'nintz, alegiñak egingo neukez ondo jakiteko.

Neskatillak Urkiola'ra joaten dira senar-gaia eskatzen. San Antonio da ezkontza onak egiteko bitarteko nagusia.

Garagarrillaren bigarren igandean, oituraz, umeen jaia egiten da. Oitura au da, mutiko ta neskatxuak, geienak urte bi oraindiño bete ez dabezanak, San Antonio ren babespean ipinteko. Oituraz, len beintzat, umeen gorputzaren astuntasuna dan besteko argizaria, orioa, edo garia eskintzen jakon San Antonio'ri.

Idalantxu onen ondoan doan argazkian gizon bat dago, txapel, jake zuri eta praka baltzez jantzita. Ekuador'en dan Los Rios'ko Gotzain izan zan Garaigordobil'dar Biktor da. Abadeen etxean dago biziten. Beraren berbakin amaituko dot idaz-lan au:

"Zoriontsuak inguru onetan bizi diran biztanleak, esaten da, baiña pentsau, toki au neguan guztiz otza da, ona datoz batzuk meza santua entzutera, beste batzuk ibilkari, txangolari edo medigoizale baiño ez dira"...baiña bizkaitar eta euskaldun guztiontzat erlejiñoarean gaiñera beste ikuspegi batzuk daukoz Urkiola'ko Santutegiak, esaterako bere teillatu-gaiñera jausten diran euriurak itxaso bitara doaz, alde batekoak Kantauri'ra eta bestekoak mediterraneo'ra.

LETONA'k



GIZONAK JAUNGOIKOAGANANTZ

JESUS IRIBARREN.

Legutiano'ko arabar euskalduna. 12 urtetan "Ecclesia" ren zuzendaria.

- Zergatik egin nintzan abade?.

- Nik ez neukan abade izateko gogorik... Bein batean, ez dakit zelan, nire osaba fraile bateri eskutitz bat idatzi neutsan, esanez: "nik ez dot infernura joan gura, eta neure burua salbatzeko misiolari izan gura dot"

Nire osaba lekaideak Kastilla aldeko ikastetxe batera bialdu ninduen, baiña ango giro ez jatan atsegin. Etxera etorri eta Gasteizko Seminariora joan nintzan, eta gero Komillas era.

Nire Meza Barria Legutiano n, neure jaioterrian, emon neban, obus eta ametralladoren artean.

- Zergatik egin nintzan abade?.

- Dana, Jaungoikoari nik ori eskatu barik, berezko gauza izan zan.

Ez neukan abade izateko gogorik, eta abade naz.

Gero misiolari izan gura neban, eta orain Gasteizen nago, Jaungoikoaren alde zertxobait egiten.

FERNAND VON STEEN

Lobaina, Belgika'ko Unibertsitatean irakasle.

- Zergatik egin nintzan abade?.

- Nire gurasoak kristiñau zintzoak ziran.

Lenengo jaunartzea egiteko atondu ninduan katekistak, Jesus'en benetako jarraitzaile izateko gogoa sartu eustan. Baiña ala ere, 16 urterarte ez neban abade izatea erabagi. Gazte nintzala garbi ikusi neban mundu onetako gauzak eta zorionak aldi gitxirako dirala, eta beste mundukoak, ostera, betikoak...

Nik Jesus'en antzeko izan gura neban. Ludi onetan Jaungoikoaren erreñua zabaldu, au da: bakea, alkar maitasuna eta alkar laguntza mundu onetara ekarri, gizon-emakumeak anaiagoak izan daitezcan.

Orregatik egin nintzan abade.

MARKO MARTINES. PORTUGALDARRA.

Nik abade izatea ez neban gogoko. Alako aantzi baltz, luzea, gabaren antzeko iluna egiten jatan. Orduko abadeak inogaz itzik egin barik, bakartadean bizi ziran.

Baiña 14 urte nebazala, nire barruan gauza bakan bat nabaitzen asi nintzan. Abade izango nintzala oldozten nebanean nire biotzean alako gozotasun, baketsu bat somatzen neban. Nire bizitzari zentzun bat aurkitzen neutsan. Alan bizitzeak balio eban. Danai on egiten bizitea oso ona eta betea zala ikusten neban.

Eta abade "ez-izatea" pentsatzen nebanean, nire barrua utsik eta balio barik, igalirik emoten ez dauan zuzatzaren antzeko ikusten neban.

Egun baten nire lagun batek esan eustan: I, Marko, Jaungoiko'aren aurka jokatzeko gauza gogorra dok. Ulertzen dok?... Nire lagun orren itzak Jaungoikoa'k esandakoak legez artu nebazan, eta abade izan bear nebala erabagi neban.

LAUGARREN ONEK EZ DAU BERE IZENIK AGERTZEN

1,936 urteko gudua etorri zanean, ni besteak lez, pilloko mutilla nintzan, au da, ez ona ez txarra.

Gudaldian neke andiak jasan nebazan; egunero nire bizitza arriskuan ikusten neban... Gudua amaitu zanean, ostera be betiko bizitza asi neban, ikastola eta ogibide bat irabazteko ikasi egin bear. Nik injinari gura neban izan, diru asko irabazteko eta ondo biziteko.

Bein nire lagunekin gogo-jardunak egitera bakartade batera joan nintzan, eta an Jaungoikoa eta nire kontzientziarekin batean bakarrik, abade izan bear nebala erabagi neban; baiña abadeen bizitza oso motela eta serioegia egiten jatan...

Jaungoikoa nire biotzeko atean jo eta jo ebillen, baiña nik ez neutsan zabaltzen. Baiña Jaunak bein eta barriz esaten eustan: bizitza osoa jolasean eta astia alperrik galtzen igaro bear dok?. Eta eriotzako orduan esku-utsik aurkituko az?... Baiña munduko gauzak eurengana bultz egiten eusten.

Azkenean Ama Birjiñak lagundu eustan nire barruko burruka irabazten, eta esan neban: kristiñau zintzoa izan gura badot, Jaungoiko'aren naia bete bear dot, eta berak lagunduko deust bide barri onetan.

Orain nire bizi-bideaz oso pozik nago, eta ez neuke ezergatik nire zoriona aldatuko.

GOIKOETXEA IÑAKI

"AUGUSTIN ZUBIKARAI" LITERATUR SARIAK

Ondarrutar semea den Augustin Zubikarai idazle ospetsu bezain oparoak euskalgintzaren alde eta euskal literaturaren alde urteetan egiten dauan lana omendu naian, bere izenez eza-
gutuko dan Ipuin eta Narrazio Literatur leiaketa onetaako dei egiten da, iru maillatan:

A Sailla.— IPUINĀ. 10-14 urte bitartekoak

B Sailla.— IPUINĀ. 15-18 urte bitartekoak

C Sailla.— NARRAZIÑO
Adinez nagusiak

PARTE HARTZEKO OIÑARRI - ARAUAK

1.— A eta B sailletan, Ondarroa uri onetako bizilagunak artu daikee parte, Narraziño Sailletan barriz, Euskal Erriko edozein bizilagunek.

2.— Lanak jatorrizkoak argitaratu bakoak eta beste iñongo leiaketara aurkeztu bakoak izango dira, ezin izango da itzulpen lanik aurkeztu, ez eta erdarazko lanik be.

Euskaraz idatzi bearke dira idazlanok, batueraz zein bizkaieraz eta gaia librea izango da.

3.— Bakoitzak lan bat baiño geiago aurkeztu al izango dau baiña edozelan be, sari bakarra baiño ez dau jasoko.


4.— LUZEERA: A SAILLA
Ez dago orri kopuru mugaturik.

B SAILLA
Idazlanak gitxienez 3 eta geienez 10 orritakoa izan bearke dau.

C SAILLA
Narrazioak gitxienez 10 eta geienez 25 orrialdetako izan behar dau.

5.— Idazlanak aurreko orrialdean idazmakinatuta, bi lerro-tako tarte itziz, aurkeztu bearke dira, biña kopiatan. (A Saillekoak izan ezik).

6.— Idazleak ez dau bere izenaz izenpetuko, goitzen batz baiño. Leiaketara aurkeztu dauan lana kartazal baten barruan sartuko dau, bere goitizena bertan idatziz. Onetaz aparte, izen-abizenak, elbidea eta telefonoa idatzi eta E.N.A.ren fotokopiarekin batera beste kartazal baten barruan sartu eta biak eleraziko dauz, posta bidez naiz Ondarroako



Udal Bulegoetara eskura ekariz, onako elbide onetara:

Ondarroako Udal Euskara Zerbitzua

Kanttoipe, 3

48700 ONDARROA

7.— EPEA Lanak aurkezteko azken eguna 1992'eko Ekaiñaren 30a izango da A eta B Sailletan.

C Sailletan barriz, 1992'eko Urriaren 7'an amaituko da epea.

8.— EPAIMAIA

Leiaketa onetako sariak erabakiko dabezan Epaimai Baloemoilea, Udal Euskara Batzordeak izendatuko dau, eta oinarri-arau oneixetan aurrikusi ez diren gertakizunetaz erabakitzeko almena izango dau, sari-rik ez emotea be erabaki al izango dauela.

9.— SARIAK

Sari banaketa Augustin Zubikarai idazleari 1992'eko azaroan zear egingo jakon onenaldia-aren barruan agiriko ekitaldi baten emongo dira, eta ira-

bazlei, saria eskuratzeko bertaratzea eskatuko jake.

SARIEN ZENBATEKOAK

A SAILLA: 50.000 pzt. saritan

Iru sari emongo dira erriko dendetan balio izango daben truke txeketan.

B SAILLA:

1. Saria 30.000 pzt.

Azken autaketara pasatuko diren beste irurak 10.000 pzt. tako sari bana jasoko dabe.

C SAILLA:

1. Saria 125.000 pzt.

2. Saria 85.000 pzt.

3. Saria 70.000 pzt.

10.— Ondarroako Udalak saritutako idazlanak argitaratzeko eskubidea beretzat gordeko dau. Eta saritu gabeko lanak egileai itzuliko jakez.

11.— Leiaketa onetan parte artzeak oiñarri-arau oneik eta Epaimaiak emongo dauen epaia onartzea dakar.

IZKUNTZA BAT BERA DAUKAGU




*Auxe dozu zure betiko
Kutxa. Bere berbea bete
eta zure bear-izanak
ulertzen dauzan Kutxa.
Etorkizunera zabalik dagoan
Erakundea, etenbako
gora-gogoagaz
bere erriko jenteari
laguntza-gai osoak
eskitzen dautsozana.
Beti dago zugandik ur
izkuntza bakar baten
alkar ulertu daikegun.*



Bilbao Bizkaia Kutxa

EUSKALDUN BARRIENTZAT

ITZ DORREA




- 1.- Txarra'ren zentzun-aurkakoa.
- 2.- Emakume'en jantzia.
- 3.- Leku baten izan.
- 4.- Ongi, ederki (bizkaieraz).
- 5.- Urrean, aldean, alboan.
- 6.- Joaten dago.
- 7.- Sagarrez egiten dan edaria.
- 8.- Maatsez egiten dan edaria.

ORDU ONENAK

Lagun bi lantegiko goraberak aipatzen dabiltz.

- Guretzat bazkalondoko orduak dira onenak... iñork ez dau lanik egiten.
- Zer? biago egiten dozue ala?
- Guk, ez nagusiak.



VN1dZIZV

TARTEGARRIAK

Etxetik ba zoaz, non egingo dozu lo?

uen)uq ada

Noiz ordainduko dozu?

VNdd'IHZV

uzTdzi Tgnz

N

GIZA-BIZITZAREN OINARRIA

KRISTAU-BIZITZARAKO

Oiñarria diñogunean ez diardugu itz-egiten edozein motariko arri bateri buruz, ez; gure **arri orreri auxe dagokio: Bera barik ez dago etxerik... bera dalako etxe orren oiñarria, etxe guztia bere gaiñean eraikiko dan arria, etxearen izate osoari eusten dautson arria**, geure oiñak geure gorputzei eusten dautseen lez. Une onetan guztiok dakiguzan Nazaret'eko Jesus berberaren itzak jator-kidaz gogora: "Nire itzetan bere bizitza osoa sustraitzen (**oiñarri-tzen**) dauan gizonaren egoera... atx baten gaiñean ereikitako etxearen antzekoa da: etorri ziran aize-boladak, euriak, uriolak, ekaitzak... eta etxe a ez zan jausi..."

Ebertarren antzera, izenak=izana, edo-ta izanak=izena alkarre-gaz batera eroien lez, geuk be gizonari (=giza-onari, izen-izana loturik,) **dagokiozan oiñarriaren atal nagusi batzuk nai doguz zerrendatu**. Atal oneik falta badira eziñezkoa dogu gizonatzaz jar-dutzea. Eta, azkenbaten, gizonik ez badogu... alperrikoa da kris-tauari buruz itz-egitea, onek gizona suposatzen daualako.

Ona emen, bada, izaki bateri "giza—on" deitu aal izateko bear—bearrezkoak doguzan baldintzak:

1.-BERE BIZITZAKO GORABEEREN JAUN ETA JABE IZAN!

Au da, bere itxasontziko lema eskuartearen daroiana itxasoak (bizitzeak) dituan gorabeeretan: berak jakin bear dau norantza jo, nondik, nogaz, zelan, zergaitik eta zertarako jo. Itz baten esateko-tan auxe esango geunke: **gizonari "burujabetasuna" dagokio**.

2.-DOAI EDO "BALIODUNA"REN IKERTZAILLE TA BULTZAGILLE IZAN!

Edozeinen antzera, bere bizitza bizitzen diarduala, gauza ede-rrak, politikak, onak, egokiak, eta bikaiñak ezagutuko ditu alderdi batetik; eta bestetik, euren muñean kaltegarri diran gauzak, euren barruan zirtzileria baiño besterik ez dabezan arazoak, txirimirizko izatez eta uskeriz edo-ta putzkeriz apaindurik agertzen diranak. **Leenengoei "doai" edo "baliioduna" deituko geunskioe. Eta eure-tariko batzuk bakarrik agertu nairik: adiskidetasuna, zintzota-suna, osasuna, poza, bakea, musika, margoa... Au da, benetan "baliokotzat" doguzan gai, izate, arazo... (Erderaz "valores").**

Ajola ta itzal aundiko doaiak, adore ta kemena damoskuza-nak, ausartiak eta biotz—aundikoak izatera bultzatzen gaitue-nak eta, berez, euren indar eta eragimena dabenak.

Eta erderaz "antivalores" deritxoguzan batzuk bakarrik agertu nairik: guzurra, gorrotoa, bekaizkeria, eziñikusia, alperkeria, lapu-rreta, iraintzea, arrokeria... eta beste ainbeste "keri" atzizkiagaz idatziko gendukezanei. "baliogabeko" edo "doaibakoaK" deituko geunskioe.

Baiña "gizona" izan nai dauana aukeratu dituan doaiak bizi-tzen aalegindu bear da, eurekin garrantzizko zerrenda bat egi-ñez, baliotsuenetatik asirik eta balio txikiena dabenetan amaituz.

Eziñ dogu amaitu idazten gagozan bigarren puntu au garrantzi aundi—aundia dauan puntu bat azaldu barik Doai edo balore **orreik**

norberarenak izan bear dirala, norberaganatuak, norberaren bizitzatikan artutakoak, norberak zerrendatutakoak eta egune-roko bizitzara eroanak, gogo edo burutapen utsetan gelditu ez dai-tezan, bizitzak damoskun indar eta segurantzean baiño.

3.-DOAIEN ZERRENDA MUNDUKO ARAZOEN ERDIAN BIZI!

Oraiñ arte argitu doguzan puntu biak munduko eztabaideen erdian bizi bear dira, bertako pozen eta naigabeen kontua izanik "gatza eta argia" izan gaitez. Doai orreik ortxe joango dira — munduan— azur—mamintzen, egiztazten eta barriztazten.

Munduak eta mundua bizi ez dauanak laster galtzen ditu bere burua ta nortasuna. edo-ta bere iritziak ainbat lasterren geldituko dira atzeratuak eta eurei eutsi nairik diktadore gisara jokatzeko arriskuan dago, uste ustelean egonez eta biziz, besteak erruduntzat eukirik eta egia osoa berak bakarrik baleuko lez.

Ori bai!: **kontuz, gero!, gaurkoa gaurkotasunezko** azalez jantzirik jatorkula—ta...besteko barik onartzeaz, kontuz! Kontuz, baita be, atzokoa atzoko **azalagaz jantzirik datorrela-ta... beste-ko barik** pikutara jaurtitzeaz, Kontuz! Otsoak bildotsez jantzirik egon daitezke! Gauza guztiak gaurkotu bear dirala gaurko mun-duak eta gaurko munduan ulertuak izan daitez. Zelan ez! Baiña atzoko ta gaurko jantzien gaiñetik, **ikertzen, ausnartzen eta opa-tzen doguzanen balioa ta edertasuna azpimarratu, maitatu** ta bultzatu bear dogu! !

4.-DAN-DANA "EMPATIA" GIRO BEREZIAN BIZI!

Oraiñ arte esan dogun guztia, giro berezi baten bizi bear da. Pertsona bera artu-emonan dan ezkeron, artu-emon ori giro berezi baten oiñarriturik egon bear da: "empatla" deritxogun itz onetan. Bere esan-naia auxe izango litzateke: artu-emonak eukiterakoan edo-ta alkarrizketa bat izaterakoan... bakoitza bestearen azalaren barruan sartzen aalegindu, ikuspuntu bardiñetik begiraturik obeto ta egokiago ulertuak izan daitez. bai bere pentsakera, bai bere jokae-ra... egiaren billa batera joanik.

5.-BEIÑ ETA BARRIARI ASI, ASPERTU BARIK!

Une onetara eldurik, bizitza biziz eta jokabideak jokatuz... aurretikan azaldu izan doguzan lau baldintzak betetzen asi bear gara... eta beti orrelaxe, bizi garan bitartean.

Onela jokatzen dauan izakiari benetan "gizona" deitu daikeogu bildur barik eta egiz eta pozez.

Onen gaiñean eregiten doguzan otoitza, fedea, itxaropena ta maitasuna ondo be ondo oiñarriturik egongo dira.

Dudarik be ez daukagu, onela bizitzeak, munduaren ona ta Jainkoaren aintza ekarriko dauana.

KEPA AGIRRE

EUSKERAKADAK ERDERAZ

Bazan nere errian illeak moztu eta apaintzen zitun euskaldun bat eta bein batean onela galdetu zion Urliak:

—Zertan ari zera?

—Aquf pelo cortando. Erantzun zion.

Arrezkero gaitz-izen orrekin gelditu zan. Erderaz erantzun arren, aren burua euskeraz ari zan.

x**

Orrelako asko gertatu oi dira Euskalerrian. Zumarraga'n esate baterako, berba auk erabiltzen zituzten ezpañetan noiz-nai:

—Qui n si serfa y, eras tu?

Zein ote zan eta, zu al ziñan?

Araba'n, berriz, orrezaz gaiñera, itz eta euskal berba asko sartzen zituzten erdal-izketaldietan Araba'ko ballaran:

—Tengo una perra! Alperra esateko.

— Me duele la bizkarra. Eta, abar.

Ez da ori arritzeko erdaldun berriak diralako. Baña, euskerakadak erderaz ari dirala Gaztelanian botatzea, ori bai dala benetan arrigarria.

Badu D. Manuel Lekuona'k lantxo bat erderaz egiña gai oneri buruz. Bertan auxe esaten digu: "Orixe'k askotan aitatzen zuela gai ori; batez ere Erdera zaarrean daudela euskerakada oiek sarri eta ugari. Era orretako esanaldiak dira "a Dios rogando y con el mazo dando", "tierras de pan llevar", "quien nisperos come" edo "el que mucho abarca, poco aprieta".

El Fuero de Sepulveda eskuetan izan duela dio D. Manuel'ek eta bertan nai aiña orrelako esanaldi "euskaldunak" daudela. Erderaz aritzean lenengo ipiñi bear dana Nor da, gero aditza eta ondoren aditzaren osagarriak, eta beste izenen osagarriak (complementos directos e indirectos). Erdera zaarrean, berriz, aditzaren osagarriak, euskeraz bezala, aditzaren aurretik ipintzen dira. Euskeraz, guretzako inportzirik geien duen itza, aditzaren aurretik ipiñi bear da, nai ta nai-ez.

Sepulveda'ko Fueroak erderaren legea austen omen du etenik gabe, legea alderantziz balitzake lez: Aditzaren osagarria beti edo geienetan, aditzaren aurretik doa.

Ona jokaera onen ale batzuek:

"Madera tayando e llenna haciendo".

"Zugaitzak ebakitzen eta egurra egiten".

"Derecho defendiendo".

"Eskubideari eusten diola".

"Qui mal ficiere".

"Gaizki egiten duana".

"Qui casa apedreare".

"Btxeari arrika ematen diona".

"Non pueda y (alli) facer casa, el dueño non queriendo".

"Ezin dezakela an etxerik egin, jabeak nai ez duala".

"Pennos en mano teniendo".

"Ageriak eskuan dituela".

Zer ondoren atera genezake gertaera auetatik? Zer adierazi nai ote digu izketa arazo nek, erdaldun baiño lenago euskaldunak zirela? Euskalerrian sortu zan gaztelera, latiñetik, baiña euskaldunen ezpanetatik. Orregaitik erderaz, euskeraz bezala, bokalak bost dira, eta ez geiagorik: A, E, I, O, U. Latiñetik sortutako frantzezeran eta italiaran, bost baiño geiago daude latiñean ere ala daudelako. Latiñez bost izki oien gaiñ beste bi diptongo daude: AE eta OE. Biñakako izki oiek soiñu bat bakararra dute: E soiñua, argiago edo illunago. Gaur eguneko latin erakusleek, latin gutxi dakiten seiñalea, diptongo oien izkiak banatu egiten dituzte: AE, A eta E. Baña, orrela ez zan eta orrela ez da.

Latiñetik artu zuten euskaldunek gaztelera, euskaldunen erara: ez zuten latiñetik diptongorik jaso. Bost izkiak utsik eta bakarrik: A, E, I, O, eta U. Bost euskaldun soiñu.

Latiñak ez duen beste soiñu bat ere eman zioten erderari: Jota soiñua. Euskaldunen jota gogorra. Latiñez iota egiten dute eta Euskeraren salbatzalle berriok euskerazko jota jatorra kendu eta latiñezko iota emekia sartu digute zintzurretik beera eta Euskera guztientzat; orain or dabil-tza erriak darabillen soiñu ori nola idatzi eziñik.

D. Manuel Lekuona'k bere ondorenak ateratzen ditu eta, erderaz datozen, erderaz emango ditut "traduttore, traditore" gertatu ez nediñ. Ona bere itzak:

"Esta problematica afecta directamente al Castellano. El Castellano en la Edad Media revestia formas distintas de las actuales en la construccion de sus frases. Pero, como quiera que estas formas eran semejantes, coincidentes con las correspondientes vascas, ello nos induce a creer que el Euskera ha influido grandemente en las evoluciones del Castellano: que el Euskera ha sido un factor muy importante en la formacion de la Lengua de Castilla".

ARRINDA'TAR ANES

1992-ZEREGINAK LIBURUARI

IRU-LAU OAR

Liburu au Zubikarai'tar Augustiñ'ena da, geien bat kon-dairakoa. Toki gitxitan kontu asko sartzearen "telegrama-ko" berbeta darabil batzutan. iBaiña bai Euskalerriko kontu askoren jakitun laga irakurlea!

Barriak danetarikoak dira, batzuk garratzak.

Bertan Zubikarai'k emoten dituan barri batzuri, iru-lauri, zer edo zer geituko dautset, oartxo batzuk egin, ori egin nei-keala ikusten dodanean. Berea kakotx artean joango da.

"1904'ko Epaillaren 5'a.- Emiliano Barandiaran jaio Ezkoriatzan.- Markiñan il zan, 1967'ko Gabonillaren 13'an. Karmeldarra.

Musikalari ta euskal idazle. "Andra Mari Euskalerriko mendietan" idatzita laga eban".

Bai, dana da ondo Zubikarai'k diñona. Baiña beste liburu bat be argitaratu eban: "Andra Mari Gaztediaren eskuetan".

Liburu biak daukadazalako diñot au.

"1927'ko Jorraillaren 27'a.- Paulino Uzkudun ukabilkala-riak Tom Henney kao laga.

Tom Henney Jorraillaren

Aurrenengo egunean,
irabazteko asmotan ustez
ura ere asi zanean,

Australiako ukabilkarin
txapeldun zegoanean,
sei rune z goitik etzala giro

Paulinoren aldamean,

Tom Henney ospitalera

zanpa artu zuanean".

Or bertsoak esaten dabena egia izango da; baiña nik bes-telan neukan buruan artuta ukabilkari bi orre in auskak eta Zubikarai'ren liburu irakurri ez ba'neu lez esango dodaz orduko kontuak.

Konbate edo auska bigaz gogoratzen naz. Lenengoa Uzkudun'ek irabazi eban puntutara eta bigarrena nulo egin eben. (Bear bada iru aurka egin zituen eta orduko kontuak dira bertsolariak esaten dituanak).

Bigarren auskegaitik kontu geiago jakin nituan orduan, Bartolo Scola'ren illoba Baldasar Scola'k esanda.

Errebasilla'n aldizkari txiki bat argitaratzen ei zan eta antxe etorri ei zan esango dodana, konbatea Ameriketan ikusi eban batek idatzita.

Auskea toki edo lokal itxi baten egin ei zan eta Tom Henney'k emonda Uzkudun'ek artzen zitu an ukabilkadak ikaragarritzko danbadea edo zaratea ataraten ei eben.

Orditik denpora gitxira Tom Henney'k munduko txapel-dun zan Tunney'gaz jokatu eban eta galdu.

"1926'ko Orrillaren 18'an.- Uzkudun ukabilkaria Europa'ko txapeldun, Espalla'gaz Barcelona'n jokatu ondoren".

Orduko Uzkudun'en arerioaren abizena ez zan Espalla, Spalla baiño. Zubikarai'k ba-daki ni oituta nagoana olako italiar abizenakaz, Scola-ta.

Ukabilketa ori Uzkudun'ek irabazi ebal a jakin ebenean, berandu, gaberditik aurrerago, erriko tanbolinterua zan Damian Jauregialzo'k txistua jot en kalerik-kale urten eban, gazteak atzetik zituala, lo egoan jentea arrituta lagaurik, sasoi aretan txistua jot en urteteko zer izan zeintekean ez in pentsauta.

"1931'ko Bagillaren 28'a.- Kortetako ordezkarien autes-kundeak. Estatuto zaleak nausi Euzkadi'n".

Bai, or esaten dan lez izan zan. Baiña berba orreik ez dautse erakusten gaurko jendeari orduko erriaren politika egoerarik. Eusko abertzaleak, karlistakaz batuta joan ziran Madrid'ko Aldun etxera, geien-bat erlejiñoia ta Estella'ko Estatutoa aldeztutera. Karlistak Naparroa'n euk en indarra ta abertzaleak Bizkaia'n eta Gipuzkoa'n. Au da Estatuto edo Araudi konturako bat eginda egoan Naparroa beste iru pro-bintziakaz.

Ez euk en Estatuto zaletasun andirik karlistak. Errege jaurti ta Errepubliketa nagusi zan aldi aretan umezurtz lez egozan ta laguntasun billa gugana etorri ziran. Ta geuk be Estatutoa aurrera atarateko bakarrik ez geukan bear zan indarririk eta eurakaz batu giñan. Baiña denpora gitxiko adis-kidetasuna izan zan.

"1935'ko Uztaillaren 1'a.-Atun sasoi an arrantzaleak Santander eta Asturias aldera jo bear izaten ebelako, ondar-rutarrak "Julito" ontzia alkilatu, astean birritan Santander gaiñetik emengo txalopak emoten eutsen arraiña ekarri eta bertako arrantzalientzat jantzi, janari ta abar eroateko".

Zubikarai'k emen 1935 urtea emoten dau "Julito" Santander'tik atuna ekarten asi zanekoa. Ostera, berak, 1934 emoten dau orretan asi ziranekoa, EGUTEGIA-1976'an. Ikusi:

"1934 urtean "Julito" barkua alkilatu zan atuntsuan Santander aldetik ibilt en ziran baporen arrantsuak errira ekarteko".

Eta Imanol Oruemazaga'k Kultur Etxeak eraturako sari-kearako idatzi eta irabazi eban idazlanean be 1934 izan zala esaten dau atuna errira ekarten asi ziran urtea.

Baiña iau da polita! Niri ez jatan gogoratzen "Julito"ren izenik, ezta besteai irakurrita be. Nitzat atuna Santander'tik ekarten ebana "Osasuna" zan. "Julito" izena Zubikarai'k idatzita EGUTEGIA.- 1976'an irakurri nebanian zer esan ez nekiala gelditu nintzan.

Ta Imanol Oruemazaga'k be "Julito" bakarrik aitat en ebala ikusita Joxu Urresti'ri itauntzea bururatu jatan eta ibai ordu onean! "Osasuna" ontzia izan zala atuna ekarri ebana

praillez bete zan". Onaiño bizkor be dotore bakartegiko euskal idazle argiak.

Ondoren datoz dibujoak: Bakartegi berria, atalurrea, lurpeko eliza, eliza nagusia, bakartegi zarra, ostatua, Neskaxa Garbien iturrirako bidea, Abatetxerako bidea. Dana ederto aitzen emona. Aurrera neure ekiñez jarraitzeko asmoz asi nintzan, baiña gauza bigaitik ez dagit olan: biago ostea idaz-lanera-ko ez delako egokiena eta bigarren jarrai datorrena be euskera bipillean doalako, or zister'tar idazleak emon euskunez.

1. IKUSPEGI ZABALA

Atalurretik irtenda, enparantzatik bere zabalean ikus diteke Bakartegia.

ELIZ-BULARRAK (absides), iru ormagintza zuzen dituzu, leio estuekin. Begira arri landuak ain ederki nabartuak eta aundiak. Orma zunbil (cilindricos) sendoen mutur diran arburuak, oso xumeak dira ta abere ta kukumarru iduriz jantziak.

DORREAK burutzen du arribil guzi au. Berau jatorrikoa da, ta makutxo berdiñezak eta buruxki xumeak apaintzen dituzten lau leioz zulatua degu.

Ondoan, Zisterko prailleak XIV'garren gizaldian elizako teillatu-gaiñean jarri zioten KANPAI-DORRETXOA (espadaña). Eskubiruntz, ondakiñen artean, maku-zorrotzeko zeru-sapaia sendotzen duan eustarkua agiri du.

Eliz-bularrak dorreak, kanpai-orma eta eustarkuak, arribil egokia sortzen dute.

Enparantzaren ezker-aldetik, BAKARTEGI BERRIA AGERTZEN ZAIGU. Au, XVII-XVIII gizaldietako langintza da. Orra nun duan lerro xumez burutua Gorria etxagin-maixuak ezarri zion teillatu-egal nagusia.

Eskui-aldera, ANTZIÑATEKO BAKARTEGIA, gaur ostatu biurtua, ta X'garren gizaldian jaso. Ikus ere, aurrekaldean saieterak, gaztelu-itxura ematen diotenak. Sorkalderuntz duan aurrekaldean, ortxe kokatua egon zan, Abataren jauregia.

II. LURPEKO ELIZA (IX'garren gizaldiko)

Elizgintza goragarria, Auñemendietako kristau-erti-lan onenetakoa.

1. Atalurre basa-girokoa. Iru arku estu, alkarren gaiñean maillaka jasoak; apaingarririk gutxi, arku-eustarri koska ernaituak besterik ez.

2. Egintza osoaren burukera begiralde ontatik ondoen ikusten da: Alkarri esku ematen dioten maku egokiak; abe ñañoak; buruzkatzar xumeak; maku -ixurikakoak, perra - itxurakoak. Arabitarren langintza ote-dan galdetuko zenduke. Baiña bere osoan bertako langintza bakana da. Asieran, iru eliz-barne eratzeko asmotan asia: bi albotakoak (3 ta 4) eta erdikoa zabalagoa ta goragokoa (5). Au arku-ardatzaz erdibitua izan zan. Oartzekoa da erdiko makutegi au eliz-bularrarekin nolatan itsatsia dagoen (6).

Bi eratako buruzkak ditu: Aldare-ondorago dau-denak, zerbait apainduagoak; eta beste batzuek, lauak eta oso basa-itxurakoak.

7. XIV'garren gizaldiko Babil donea, gotzaia.

8. XVII'garren gizaldiko irudia, Leire'ko abat Biril donearena. Antziñateko esana da, done au 300 urtean urretxindor baten txorro-txioa entzuten lilurata egon zala.

Lurpeko elizatik ateratzerakoan, ixkillaretan gora zoazela, goiko elizaren lendabiziko atalurrea ikus dezakezu.

9. Eliz-buruaren lendabiziko atalurrea. (3garren egitamua).

Abeak ez dute oiñarririk. Arku-koskaldi biak buruzki beretik jeikitzen dira. Makuak oso nolabait-tekoak dira. Buruzkak, berriz, xumeak eta antziñatekoak.

Kanpora irten zaite Bide-orratzari jarraituaz, LENDABIZIKO BAKARTEGIARI bira osoan begiratuaz; X'garren gizaldiko elizgintzaren ondakiñak nabari. Aietan, kalostra zar baten zantzoak agertu dira. Elizaren kanpo aldeko ormetan, ate baten ondoan, eustabe batean, egillearen izena irakur diteke: MAGISTER FULGERIUS ME FECIT (Fuljerio Maixuak egin ninduan).

Elizan sartu baiño lenago, ikus erromatar-giroko atalurre ederra.

III ATALURREA (XII GIZALDIKOA)

Erosoa ta antz-irudiz aberatsa eta Konpostela'ko ertikeraren aidea dauana (iruzokodun eta gaiñerakal-deko irudietan). Goiko irudi oneik Kristo ta onen ikasleak Azken Epaiketean erakusten ditu. Ara inguratzen ditu Liburu Santuetako zenbait done eta lurralde ontako doneak.

13.- Iruzokodun-barruan, salbatzaillea, donez inguratuta agiri jaku. Ixur lisatuak eta kapuzai zabalak. Esteban Maisuaren langintza da guztia. Jaunaren inguru dagozan irudiak, ezkerretik eskuiruntz, oneik

IZURDEN ALDE

Ba dirudi itxasoetan, obeto esanda, itxas errietan, izurden kezka eta zaindu naia gero ta nabari eta ardu-ratsuago dala.

Arrantzialien lagun diran izabere onein zaintzaren alde neurri zorrotz eta gogorrek artu izan dabez estadu batzuk.

Oneitan Amerikar Estatu Batuetako erabagi eta agindu batek zotin eragin dau.

Estatu Batuetara atunkia bialtzen daben Errialde guztiak ziurtasuna emon bear dabe euren atun arrantzaz ez dala izurdarik arrapatzen, ez dala izurden kalterako erabiderik onartzen.

Itxuraz Sorkaldeko Pazifikon urteetan il izan diran ainbeste izurde galtzeak izabere onen etorkizunaren kezka larria sartu dau, eta izurdak galtzea atunkien arrantzaren kaltegarritzat dauke.

Esaten danez, 1991 urtean mexikotar berrogeta zortzi (48) atun arrantza-ontzik eun eta ogei milla tonelada (120.000 tn) ego oridun atunki arrantzatu zituen. Baiña nai ta orain len baiño izurde gitxiago il, diñue-nez mexikotarrak azken denboraldian amasei milla izurde galdu dabez.

Orren aurka ekiteko errialde batzuk Mexikoko atunari merkataritzarako ateak itxi dautsez. Amerikar Estatu Batuak lez, Frantze eta Tailandiar gobernuak be ala egin dabe.

Mexikotarrak, zela ala euren burua garbitzeko, atun arrantza-ontzi bakoitzaren barruan begirale bat eroatera beartuko dabe, atuna sareetan txalopa ondora urrera-

tzean izurdak saretik kanporatzen alegindu daitezcan. Esaten dabenez zeregin orrek lan andia emoten dau edo emoten dautse txalopako gizonei eta uretara salto egitera beartuten dauz, eta gaitz izaten ei da izurdak saretik kanpora ataratea lortzea.

Gai onetan eragin aundia ekolojisten aldetik egon da, eurok izan diralako Ipar Amerikako Estatu Batuetan lege ori artu eragin dabenak, izurden ugaritazuna eta bizia zaintzeko asmotan.

Dana dala Mexiko'tik gain, Panama, Ekuador, Venezuela eta Ipar Amerika berbertako atun ontziei be kalte egiten dautse lege orrek, esaten danez urtean arrantzaten dabezan berreun eta larogetamar milla (290.000 tn) toneladatako euneko larogei (80%) izurdak ur azalean inguratu eragiñez egiten dalako.

Itxuraz 1990'tik ona izurden arrapatzea asko makaldu da artutako erabagien ondorenez eta ori ekolojistak eurak ezagutu izan dabe.

A.Z.

Oarra: Zoritxarrez itxaskien izenekin ez gabiltz ain jator, eta esan nai dogu izurdeia itxas aberea dala, eta arrain moltoan jarraitzalle danetik, arrantzialientzat arrantzarako lagun on eta berezia dala.

Azkue n iztegiak IZURDE berbari burua au diño: tonina, delfin, cerdo de mar. Palabra compuesta de iz (agua, mar) y urde, urda, cerdo.

IPUIN-SARIKETA

(BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurten be, ipuin-sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

Ipuiñak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatzia izan bear ko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.

Ipuiñak asmatu-rikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.

Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.

Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbo'ko Colon de Larreategi, 14, 2.ª eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emondo da maikoen erabagia eta ZER'en agertuko da, Urterillean, baita DEIA Egunkarian be albait lasterren. Sariak lau izango dira:

1.ª 40.000 pezeta

2.ª 30.000 pezeta

3.ª 20.000 pezeta

4.ª 10.000 pezeta

Ipuiñak izen-ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

EUSKERAZALEAK

"BAINA EZ DA GURETZAT"

Gaurko izenburua, eredu edo argibide bezela ezartzea gura izan dot, erriaren gogoeta, pentzakerea adierazten daualakoaren ustez.

Onetaz, gertaera bat esatearen leian nago. Gertakizun au, orain urte batzuk jazorikoa da. Badakizue "Eguena" edo onen antzeko izendun astekaririk egoanik edo dagonik? Bai? Olan bada, astekari au argitara urten zan fetxaren ingurutik ona joan diran beste urte igaro da, gertakizun edo jazoera au gertatu zala.

Orduan, oraindiño "batua" izeneko izkuntza, benetako (edo aal danik antzerakoago) izkuntza batu bat izango zalakoan itxaropenean gengozan.

"Sondika'ko Jon Bateotzaille deunaren eleizan, goizeko amar t'erdietako mezea, euskerazkoa izaten da domeketan. Eleizako aterpean edo ate-aurrean, mezea amaitzean, egunkariak saltzen andra bat jartzen zan. Egunkaria erostera-koan emakume ori eta biok, euskeraz mintzatzen giñan, jakiña. Euskerazko astekari edo aldizkari barri bat urten zala entzuten zan sasoi aretan eta ia berak ete eukan itaundu neutsonen baietz erantzun eustan, jarrai-jarraian auxe berau esanik: –"Baiña ez da guretzat"– Ez dot nik iñoiz aldizkaria erosi, ez dakit orduan zelan dagon idatzita. Dana-dala, ez da irudimen aundirik euki bear zer jazoten zan jakiteko.

Ba dago, orraitino, izkuntza dala-ta, zer esanik, orduan, Bizkaiko errietan zear, etxerik-etxe, doazan liburu-saltzaille, eta baserriko jentearen artean gertaturikoak. Ba-dirudi baserrikoen euskerea etzala bear dan beste ona. Ezin izaten eban bizkaierazko berbatxurik entzun. Ez da au arritzeko, nik neuk Bilbon, Ajuriagerra kaleko liburu-denda baten be purrustada galantak entzunda daukadaz, bizkaierazko liburu batetaz itaunka joateagaitik.

Onelako jazoerak baina, ez dot uste iñork aitatzerik be merezi dauanik danon gogoetan dagozelako, baiña gogoratzea ez jatorku txarto. Irakurle bakotxak bere kontuak atara dagizala. Ez dagiala iñork uste izan, ezta ezetara be, batuzaleak bere espanetan bizkaierazko itzik jarriko dabenik. Gurago izango dabe erderazko edozein berba erabilli, bizkaierazkorik baino, eta olan irakasten deutse umeai. Badakigu ba, tiroak ortik doazela, eta izkuntzari buruz, aurrez-aurre zer dagon: Nortasun ezbaridiñekoa, esaera zailtsu, neketsua, izakera guztiz ezbaridiña eta bestelako pentsakera, joskera bera be...

Errazoia ba, erriari emon bear. Eta erriaren erantzuna auxe da: "Ez da guretzako".

LARRONDO

ENTZUN

Zuk nai dozu EUSKERAZALEA'ren 25n. urtean maite dozun erakunde oneri oparitzu bat egitea?

Geuk esaten dautsugu zein dan oparirik ederrena: Bazkide barri bat eta batera ZER aldizkari onen arpededun izango dana aurkitu egizu. Bat baiño geiago al ba'dozu obeto.

Ez da ori ain gauza gaitxa.

Egin zuk be zerbait EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren jai aundi au ospatzeko.

Opariagaitik, aurretiaz, gure eskerrik beroena agertzan dautsugu.

EUSKERAZALEAK

ERRI GAZTEEN ITXAROPENA

(I)

IKUSI ETA BIZI

Ikusi eta sinistu, ikusi eta ezagutu, ikusi eta bizi. Auxe bai dala mundu ontako jakituririk berebiziena. Liburuak eta egunkariak ez dira jakinbide onenak. Alde aundia-dago idaz-lanetatik, azaletik bezela, gauzak jakitea eta, erriaren bizibidean murgildurik, ikusi, nabaitu eta bizi izatea.

Izan be lurbira ontako ikas-liburu sakonena, biziena, gizadia eta izadia bera dozu. Eta bere barruan ondoratu bearra daukagu giza bizitza zer dan, eta zer ez dan oartu eta egiztau nai badogu.

Aspaldi ontan Peru laterrian bizi naz. Danok dakigu, entzutez beintzat, zenbat eta zelangoak diran erri onen larrialdiak. Bere lurralde zabalaren ondasunak ugarriak eta agortu eziñak izanik, oso agirian dago erri onen txirotasuna eta gosea, ezbearra eta bear gorria, indarkeriaren zitalkeri uler-ezina, agintarien ustelkeria, aberatsen zekenkeria, eta erri gidarien maltzurkeria.

Aitatutako zoritxar oneik, gure artean esaten dan lez, ikustekoak dituzu. Bai, ikustekoak, batez be, eurekandik datozen ondorioak eta ondamendiak. Alperrik izango da euren barri eta argibidea emon nai izatea!

Baña alan da gustiz be ezbearra, ustelkeria, indarkeria eta beste ondore txarrak ez dira, ez, gizartearen gaitzik gorrienak. Gizartea lur jota jartzen dauana bere itxaropena galtzea dozu, itxaropenari egoak erretzea. Ez dago onen pareko zoritxarrik.

Itxaropenaren eginbidea auxe da: zoritxarra, zorion egitea; illuna, argi biurtzea; guda gaiztoa, bake biguna egitea; eta ondamendia, oparotasuna.

Peru errian leen eta beiñ dakusdana auxe da izan be: itxaropenaren leia eta egarria; bear izanik bear eragitea; bearra eta ezbearra oinperatu eta garaitzea.

Bai, arritzekoak dira, izan be, emengo gazteek egiten dabezan egiñalak euren buruak garaipentsu eta gorenengo maillan jartzeko. Egunero arpegi emon bear dautse ainbeste ezbearrai, eten barik adierazo bear dabe euren gaitasuna datorkiezan eragozpenak azpiratzeko, eziñezko dirudien oztopoak goituteko, eta, sarri askotan, etsipenaren erpeetan ez jausteko.

Beti dago arantzea pobreen oñetan, baño zintzo eta bikainki jokatu ezkeru, etorriko da lora-aldi eder eta emonkorra.

Erri aberatsetan, gurean be bai?, bizitza eroso eta ugartasunez beteak, itxaropenaren orde, panparroikeria eta

arrokeria izan oi dogu. Eta erasoaldiak datorkiguzanean, ezbear gogorrakin gure buruak jota ikustean, itxaropenak kuku egiñik, etsipenera goaz.

Biotz aundiko giza- seme guztientzat, naiz eta nekaldi gogorrenak izan, beti dago zabalik itxaropenaren egun sentia.

ERRI GAZTEA.

Ego Amerika, izatez, erri gaztea dozu. Emengo bizilagunak, ia geienak, ogeta amar urtetik beerakoak ditugu. Gaztedia, barriz, itxaropenaren naiz etsipenaren aurrean, erdi makur ikusten dogu. Bere aurrean etorkizunaren zeru urdiñak, eta, bestalde, etsipenaren laño moltzo illunak, beingoan agertzen dira. Zer egiñ arrisku gogor onetan?

Baña gaztediaren arriskuak, udabarriaren arriskuak dituzu. Eurite eta ekatxaldirik gogorrenak jo arren be, beti geratuko dira lora eta frutu gozoak. Udabarria, azken baten, udazkenaren itxaropena izan bear.

Amerika aldeko gaztedia, bere utsegite, eta bere etenak eta obenak izanik, gogo bizi eta gartsuaren jabe dozu. Gogor-aldiak berak ere amets egiten erakusten dautso. Bizitza obearen itxaropenak eutsi eziñeko bultzada damotso. Etorkizun obea bere esku dagola ikusteak, kemenez betetzen dau bere biotza. Ez dago ogirik neke barik. Eta, gogoan dan tokian aldaparik ez.

Egia esan, emengo gaztedia be, nun ez?, nasaikeriaren kutsaduraz jota dago. Baña bear gorriak eragiñ bizia damotso bide obeak zabaltzeko. Eta, nork ukatu? leenbidea pertsona bera dozu, bere zuzentasuna eta aundi-zaletasuna. Ez dago beste biderik.

Au dala ta, diranak dirala, naiz ta pobreak izan, Ikastetxe Nagusian ikasketak egiteko amorru bizia dauke. Pertsonaren garaipenak ekiñaldirik onenak merezi ditu, bestela "ez gatz ez berakatz" izateko arriskuan gagoz. Itxaropenaren elburua beti izan oi da garaipena. Eta itxaropenaren bizkar-muiña pertsona bera dogu, bere duintasuna. Itxaropen ori gizarte dongearen erdian bizi izatea ekiñaldirik goresgarriena da, izan be.

Itxaropenari ederto datorkio gure esaera zaarra: "Asiak dirudi amaia, amaiak urregorria".

LIMA' TIK.
URIGUEN' TAR ZENON.

(Urrengoan jarraituko dau)

BIZIA AUPADA BAT DA, ARPEGIA EMOIOZU

Bene-benetan bizia dei bat da. Begiratu sendira, mendira, ikastetxera, soloetara, itxasora, eguroletara ta danak daukaguz deika, euren aupadea estua ta arduratsua da sarri askotan.

Lurrean sortu izan dan gauz eder ta oiñarrizkoenatariko bat sendia da. Biziaren berezko izaerak, laguntasun-barrak, odolak ta gurasoen seme-alabenganako ta seme-alaben gurasoenganak garramurak eskatzen dau alkarrekin bizi izatea. Gurasoen maitasun leia euren semeengana doa, odola deika dago, gurasoen biziaren bizia bai dira.

Lengo aldian, aize aldi bat izan zan komunismoaren izenean sendia austeia nai izan eban pentsakerea. Sendia ausi ta seme-alabak estatua-
ren otsein ipintea nai izan zan... Gaur, berezko legearen aurkako ta estatua-
ren aldeko morrontza ori nai ebenen bidea, ankaz gora, ta buruz bera, lurpera joan da.

Aurretiko beste era bateko nauskeriak, sendia ausi ta estatua goratu nai izateko bide gaiztoari sorrera emon eutson, baiña giza-asmabide orrek ezin izan deutso geiagorik egin biziaren berezko legeari. Ta bejon deiola bizitzaren zuzentasunari.

Sendia, zure zeregiña aundia da lurrean. Ori dala-ta, zure aupadeak, beti, deadar egingo dau gizartean. Ta zuk ezarriko deutzazu gatza biziari bere oiñarrizko sor-lekuan.

Bizitzaren beste aupada bat mendia da. Izan bere nork ez dau nai mendira joatea...? Mendia-

ren egala lirain dago egun-sentian itxasaldetik urrezko bola baten argia sortzen danean, ta arrats-beran, eguzkia, geldi geldika, ditzizari, itxasora doanean.

Mendian bizi deika dago ta opaka... ederraren ederrez, ator ator, dirausku ta lurraren mamiña, gizontasunez, landu ba-dagistazu, aritzik sendo ta lerdenenak ta fruturik gozoenak emongo deutzudaz. Izan bere, gure arbasoak, ondo nekatuta, atxurrez, landu zituen Euzkadiko lurraldeak, zugatzez, ondo jorituak.

Biziaren aupada eder bat ikastetxea be badogu. Giza semeak lurra landu bear eban biotz eta adimenaren bidez. Almen eder bi onek, ordu onian, artu zituan gizonak gizadiaren bizia argitu ta zuzentasunez aztertuteko. Bizia, gaztetasuna, indarra dira zugatz sendoaren sustraia, baiña gazte leiñargia, jakituriaren sustraia, jakintsuen argi ta oar-ikasia artzera doa.

Ortarako sortu ditue gizon ikasiak jakintsuen ikastegiak. Oldartu ta arpegi emoiozu, zure banean dozun argi txinta ori eguzki urre biurtu dedin gizadiaren bizi barrirako.

Argitik ta biotzetik sortu bear da lur barria ta bizi ohea, gizadi ederrago bat giza zentzundunen alkartasunean sortu dedin, emen, lurrean. Buru ta biotzdun gizonaren zorra da argitasun ta biotzez gizadiko txirotasuna ta negarra ibitu ta anaien arteko bazkun bakezkoa sortu ta gozar-tzea.

PAULIN